

Protagonista gasteiztarrak

Montehermosoko markesa

María del Pilar Acedo y Sarriá Tolosan jaio zen 1784ko martxoaren 10ean. Edera eta oso ikasia izanik, 16 urterekin bera baino 17 urte zaharraoa zen Ortuño M^a Aguirre gizon kulturadun eta aberatsarekin ezkondu zen. 1801. urtean bere alaba bakarra jaio zen, Maria Amalia, 1811. urtean Goia jeinuak margotu zuena.

1808ko irailaren 22an, Jose I.a Gasteizera heldu, Montehermoso jauregian ostatu hartu eta markesarekin maitemindu zen, erregearen emakumerik gustukoena izatera helduz. Aguirrek jauregia ere saldu zion erregeari bi milioi errealetan, dirutzak garai hartarako. Hainbat unetan (1808, 1811 eta 1813) errege frantsesaren gortearen egoitza izan zen jauregi hau. Madrilen, berriz, erregearen gogokoaren paper argia egiten zuen gorteko jazoera sozial guztietan. Madrilдарек honako hau zioen kopia egin zuten:

'De Montehermoso la dama, tiene un tintero, donde moja su pluma Don José primero.'

Markesak eta Jose I.ak 1813ko ekaineko bataila ospetsuaren bezperan alde egin zuten Gasteiztik, Frantziara bidean. Handik gutxira, elkar ikusteari utzi zioten behin betiko. Pilar Acedo Carresen, Bearn, hil zen 1869ko otsailaren 27an.



Alava Generala



Miguel Ricardo de Álava y Esquivel (Gasteiz, 1772 - Barèges, Frantzia, 1843). Bergarako Errege Seminario Patriotikoan ikasi ondoren, itsasgizon-lanari ekin zion Ignacio M^a de Álava eskutik. Toulon eta Trafalgarreko batailetan esku hartu zuen. Gasteizera itzuli eta Baionako Asanbladan esku hartu zuen Itsas Armadaren izenean. Armada frantsesaren jarraitzailea, Madrilerantz abiatzea erabaki zuen haren aurka borrokatuz. Independentziako Gerran zehar eginkizun bikaina bete zuen Cadizko Gortean eta Wellingtonek zuzendutako armada aliatuaren artean. Bataila handi askotan esku hartu zuen eta bereziki goragarria Gasteizkoan izan zuena izan zen. Berari esker, hiriaren arpilatzea ekidin eta bizi eta ondasun ugari salbatu zituen.

Epealdi absolutistan zehar jazarpena jasan ondoren, Wellingtonekin Estatu Nagusiko kide egin zen harekin zuen adiskidetasunari esker eta Waterlooko Bataila erabakigarrian esku hartu zuen 1815. urtean. Horren ondoren, gertaera bitxi baten protagonista izan zen Alava jenerala, frantsesek lapurtu eta Parisera eraman zuten egilerik onenen 284 margo eta 108 objektu berreskuratu zituen.

Ondoren, enbaxadore izan zen Frantzian (1815, 1835) eta Herbehereetan (1815-19), diputatua Arabatik (1821), Gorteetako presidentea (1822), enbaxadore Erresuma Batuan (1834, 1838), senataria (1834, 1836), Itsas Armadako ministroa (1835) eta Ministroen Kontseiluko presidentea (1835).

Europako Kultura Ibilbidea.

2015eko martxoan, Napoleonen ibilbideak Europako Kultura Ibilbide izendatu zituen Europako Kontseiluak. Izendapen prestigioitsu horrek Europaren ideia identifikatzen laguntzen duten ibilbide historikoak saritzen ditu, eta tartean, Donejakue Bidea, Ibilbide Flamigeroa edo Carlos Varen Ibilbidea. Hiri Napoleondarren Europako Federazioa da ibilbide horren arduraduna, eta Vitoria-Gasteiz, haren Lehendakariordetzaren gaineko ardura duena. Berori hedatzen laguntzeko "Destination Napoleon" marka sortu da, eta baita web euskarriak, logotipoak, sei hileko aldizkaria, etab. ere.

Informazio gehiago: www.destination-napoleon.eu www.napoleonicities.eu



Agenda

Merkatu napoleondarra

2016ko apirilak 1, 2 eta 3. Arriaga parkea. Lakua.

Eskulan, gastronomia eta bertako produktuen 130 postuk baino gehiagok frantsesen okupazioaren garaia eramango gaituzte. Kalejirek, musikak eta Napoleonen kanpamendu baten berregiteak aseturuko eskaintza osatuko dute.

Aste napoleondarra

2016ko maiatzaren 21etik 27ra. Europa Biltzar Jauregia.

Konferentzia-ziklo batek, erakusketek eta kontzertuek XIX. mende hasierako garai historiko garantzitsuan eta horrek hirian izan zuen eraginean sakonduko dute.


Gasteizko Batailaren antzezpena.

2016ko maiatzak 27, 28 eta 29. Olarizuko zelaia.

Europako hainbat tokitatik etorritako 500 lagun inguruk garaiko kanpamendu bateko egunerokotasuna, instrukzioa eta armen erabilera antzeztuko dute. Desfilea egingo dute Gasteizko Batailan erorritako guztiak eta Alava jeneral gasteiztarra omentzeko. Olarizuko zelaiari armada frantses eta aliatuaren arteko borrokaldeen antzezpene historikoak egingo dira. Huts egin ezinezko ikuskizun ikusgarria.



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

VITORIA-GASTEIZKO NAPOLEONEN IBILBIDEA




VITORIA
GASTEIZ
green capital

WELLINGTONEN GARAIPENA

Gasteizko Bataila, 1813ko ekainak 21

1813ko ekainaren 21ean Independentziako Gerrako batailarik erabakigarrienetako bat gudu zen. Wellington dukea eta Alava jenerala buru zituzten tropa aliatuek Jose Bonapartek berak eta Jourdan mariskalak gidatutako tropa frantsesak garaitu zituzten, eta ondorioz, behin betiko kanporatu zituzten Iberiar penintsulatik. Hain

garrantzitsua izan zen bataila, ezen uneko Europa asaldatu, Beethovenek berak "Wellingtonen Garaipena" (opus 91) izeneko sinfonia konposatu baitzuen hura ospatzeko.



Jose erregearen ekipajea

Perez Galdosen "Episodios Nacionales" delakoetako baten izenburua da honako hau, eta frantsesei Gasteizko Batailan harrapatutako ondasun-kopuru erraldoiari buruzkoa da. Jose I.a buru zuela, Madrildik iheska zetorren gorte osoa, beraiekin bitxi, urte, eta artelan ugari zera-matzatela. Milaka gurdiditu ziren lokatzetan Iruñerantz ihesi zihoazela eta garailek lapurtu zituzten. Artelan ugari berreskuratu zituen Wellingtonek, baina Fernando VII.ak asko oparitu zizkion gerran, lortutakoa eskertuz. Gaur egun

Londresko Ashley House izeneko bere etxean daude ikusgai.

Ondorioak

Bataila honek frantsesen Penintsulako okupazioarekin amaierari eta Fernando VII.a tronura itzularazteaz gain, aliatuen Napoleonen armada ahalguztidunaren gaineko garaipenak Europaren historiaren norabidea aldatu zuen. Austriak, Prusiak, Errusiak eta Suediak negoziazioak hautsi zituzten Napoleonekin eta berriz ere borrokatu ziren berarekin Leipzigen garaitu zuten arte.

JARRAITU NAPOLEONEN URRATSEI

Historia gogoraz eta Gasteiz napoleondarreko eszenatokiak eta pertsoniak ezagutzeko gonbit egiten dizugu. 7.000 biztanle eskaseko hiri txiki honek Erdi Aroko hiri zaharra neoklasikorako jaurzia egitera bultzatu zuen elite ilustratu bat zuen buru. Independentziako Gerrak zabalkunde fisiko eta kultural hori eten eta Europa osoan zehar eman zuen ezagutzera, inguruetan gudatu zen bataila garrantzitsuari esker.



1 Udaletxea eta Espainia plaza.

Frantsesek hiria okupatu zutenean, Olaguibel arkitektoak eraiki berria zuen Plaza Berri neoklasikoa. Iparraldeko aldean Udaletxea dago, non 1808an Fernando VII.ak hartu zuen ostatu, Baionara bidean. Egunero, arratsaldeko seietan, bertako erlojuaren kanpaiek Beethovenek 1813an konposatu zuen "Wellingtonen Garaipena" sinfoniako notak jotzen dituzte.



2 Arkupeak.

Olaguibelenak hauek ere, hirigintza ilustratuaren adibide bikaina dira. Muino baten gainean eraikitako Erdi Aroko hiria eta lautadako zabalkunde berria lotzen dituzte, plataforma eta eremu publikoen bitartez. Eszenatoki horretan bertan, Fernando VII.a Baionara zeraman gurdiko bridak moztu zituzten gasteiztarrek 1808ko apirilaren 19an. Bertan izendatu zuen Napoleonek Jose anai Espainiako errege.



3 Batailaren Monumentua.

Andre Maria Zuriaren plazaren erdian dago, Gasteizko Bataila ospatzen du eta horretan eskatu hartu zuten pertsonai garrantzitsuenak irudikatuta daude bertan. Gabriel Borrás eskultore valentziarrak egin zuen harri eta brontzezko monumentu hau eta 1917an inauguratu zen, batailaren lehen mendeurrena zela-eta.




4 Montehermoso Jauregia.

XVI. mendean eraikitako hau, Montehermosoko markesen jabetzakoa izan zen. Lehenengoz, 1808ko uztailean hartu zuen Jose I.ak ostatu eta haren jabea zen Pilar Acedo andrearekin maitemindu zen. 1808ko urrian erosi zuen, bi milioi errealetan. Jose erregearen Gortearen egoitza izan zen jauregia, okupazioaren hainbat unetan. Napoleonek 1808ko azaroan elkarriketatu zen anaiarekin jauregi honetan.



5 Eskoriatza Eskibel Jauregia.

XVI. mendean eraikitako hau Errenazimenduko euskal arkitektura zibilaren adibiderik onenetarikoa da. Ilustrazioaren ideiak Euskal Herrira ekarri zituen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen egoitza izan zen. Haren egitekoa funtsezkoa izan zen garaiko gizartearen. Frantsesen okupazioan zehar, hainbat erabilera izan zituen jauregiak: ospitale militarra, espetxea, ukulua eta jendarmeriaren kuartela.



6 Etxanobetarren Etxea.

1805ean Manuel de Echanove ingeniariak eraiki zuen eraikin soil hau, hiru euskal probintziek eduki zuten eta frantsesek 1810ean Matxitxako Lurmuturraren Prefektura izenpean sortu zuten baterako lehen administrazioaren egoitza izan zen. Etxe honetan, orobat, Jourdan mariskalak hartu zuen ostatu Gasteizko Batailaren bezperan, sukarrak jota zegoela.



7 Alamedako Markesaren Jauregia.

Lehen markesak 1735. urtean eraikitako jauregi barrokoa. Horren oinordekoetako bat, Ramón M^a de Urbina, ilustratua bera, Arabako diputatu nagusia eta hiriko alkatea izan zen hainbatetan. Plaza Berriaren eta Arkupeen multzoa bultzatu zuen, Erdi Aroko hiria hiri ilustratu bilakatu. Etxe honetatik Humboldt edo Jovellanos bezalako pertsonai ilustratuak pasatu ziren.



8 Álava-Eskibel Jauregia.

XV. mendeko jauregi honetan jaio eta bizi izan zen Miguel Ricardo de Álava y Esquivel, Alava jenerala, funtsezko pertsonai historikoa historiako epealdi hau ulertzeko. Jauregiaren fatxadak (Zapatari kalea) jatorrizko egoerari eutsi dio, baina mendebaldekoan (Errementari kalea) berrikuntza-lan sakona egin zen XIX. mendean. Fatxada honetan 1782. urtean ontzi ingeles batean harrapatutako erloju bat ikus dezakegu.



9 Arabako Foru Aldundia.

Independentziako Gerraren ostean eraiki zen jauregi neoklasikoa hau, 1833 eta 1858 bitartean, hain zuzen ere. Lehenago, San Frantzisko komentua desagertuan, okupazioan zehar ospitale izan zenean, biltzen ziren Arabako Batzar Nagusiak. Fatxada nagusiaren eskuinaldean Alava jeneralaren estatua ikus daiteke, Arabako diputatu nagusi izendatu baitzuten 1812ko azaroan.



10 Arma Museoa.

Arma historikoen bilduma interesgarria gordetzen du eta Gasteizko Batailari buruzko ezinbesteko informazioa dago bertan: maketak, armak, uniformeak, planoak, etab. Pieza bitxiak daude, eta tartean, Jose I.aren pistola-zorroa edo Wellingtonen te-jokoa. Duela gutxi, Gasteizko hiriak Alava jeneralari arpilatzetik salbatu izanagatik oparitu zion ezpata ere gehitu da.



11 Napoleonen Etxea.

Etezarra izeneko etxe honetan Napoleonek lo egin zuen 1808ko azaroaren 5etik 9ra, Bailengo batailaren ostean, Jose anai laguntzera joan behar izan zuenean. Bertan antolatutako, bere Estatu Nagusiarekin batera, galdutako boterea berreskuratzeko estrategia. Balkoietako batean Napoleonek erretratua dago eta fatxadan honako inskripzioa hau: "Hic Napoleón I Imperator habitavit anno MDCCCVIII".

